

Futbola ♦ Manchester Unitedek atzo lortu zuen final-laurdenetako txartela

Txapelduna sailkatu da

Fiorentina aurreratu zen, baina ingelesek irabazi zuten azkenean

Manchester U.	Fiorentina
3	1

Manchester United.- Bosnich; Irwin, Berg, Stam, Gary Neville; Beckham, Keane, Scholes, Giggs; Cole, Yorke.

Fiorentina.- Toldo; Torricelli (Tarozzi, 75m.), Adani, Repka, Pierini; Heinrich, Rossitto, Rui Costa, Di Livio (Amoroso, 75m.); Mijatovic (Chiesa, 63m.), Batis-tuta.

GOLAK: 0-1: Batistutak (16m.); 1-1: Colek (20m.); 2-1: Keanek (33m.); 3-1: Yorkek (70m.).

ARBITROA: Riszard Wojcik (Polonia). Txartel horiak: Beckham, Torricelli, Adani, Pierini. Gorria: Rossito (62m.).



MAX NASH / AP

Batistutaren goleko jokaldia.

Erredakzioa / Donostia

MANCHESTER UNITED Txapeldunen Ligako egungo txapeldunak atzo lortu zuen final-laurdenetarako sailkapena, Fiorentina 3-1 irabazita. Hala ere, maldan gora jarri zitzaion partidua, Batistutak gola sartuta. Buelta eman zion, ordea, partiduari Manchesterrek.

Girondins 1-Valentzia 4 • B Multzoko beste partiduan, garaipen garrantzitsua lortu zuen atzo Valentziak, eta oraindik ere sailkatzeko au-

kerak ditu, eta handiak, gainera, orain (hurrena etxean berdinduta nahikoa du, golen aldea duelako Fiorentinarekin). 0-2 aurreratu zen Valentzia, Djukicen eta Mendietaren golei esker. Wiltordet egin zuen 1-2koa. Kily Gonzalezek 1-3koa eta Sanchezek 1-4koa.

Bartzelona 3-Hertha 1 • Txapeldunen Ligan galtzeke segitzen du Bartzelonak, eta, gainera, bere multzoan lehen postuan bukatuko du. Atzo 3-1 irabazi zion Hertha Berlini. Kanpoko taldea aurreratu

zen, Alvesen golarekin. Xavi eta Gabri harrobikoek egin zituzten Bartzelonaren lehen bi golak. Hirugarrena, Klui-vertex.

Oporto 2-Sparta 2 • Final-laurdenetarako sailkatzeko aukera ez zuen baliatu atzo Oportok; Spartari irabazita, txartela lortua zuen, baina berdinketa baino ez zuen erdietsi. Jorge Costak eta Capuchok 2-0 irabazten jarri zuten Oporto, baina Lokvencek (74m.) eta Fukalek (91m.) berdindu egin zuten partidua.

Sailkapenak

A Multzoko	Pt.	J	I	B	G
1. Bartzelona	13	5	4	1	0
2. Oporto	7	5	2	1	2
3. Sparta Praga	5	5	1	2	2
4. Hertha Berlin	2	5	0	2	3

B Multzoko	Pt.	J	I	B	G
1. Manchester U.	12	5	4	0	1
2. Valentzia	9	5	3	0	2
3. Fiorentina	7	5	2	1	2
4. Girondins	1	5	0	1	4

C Multzoko	Pt.	J	I	B	G
1. Bayern Munich	13	5	4	1	0
2. Real Madril	7	5	2	1	2
3. Dinamo Kiev	7	5	2	1	2
4. Rosenborg	1	5	0	1	4

D Multzoko	Pt.	J	I	B	G
1. Chelsea	10	5	3	1	1
2. Lazio	8	5	2	2	1
3. Feyenoord	7	5	2	1	2
4. O. Marseilla	3	5	1	0	4

Oharra: final-laurdenetara sailkatutakoak beltzean.

Azken jardunaldia

Hertha Berlin	-	Oporto
Sparta P.	-	Bartzelona
Fiorentina	-	Girondins
Valentzia	-	Manchester U.
Dinamo Kiev	-	Bayern Munich
Rosenborg	-	Real Madril
Marseilla	-	Feyenoord
Chelsea	-	Lazio

Lehen lau partidua hurrengo asteartean; besteak asteazkenean

Athletic ♦ Atzelariak haustura bat dauka begi inguruan eta baliteke partidu gehiago galtzea

Larrazabalek ezingo du jokatu Oviedon

Ramon Basaldua / Bilbo

AITOR LARRAZABALEK Bartzelonaren aurka begian jaso zuen kolpea hasieran uste baino larriagoa izan da. Loiuko atzelariari eskanerra egin zioten atzo, eta azterketaren arabera, haustura txiki bat dauka ezker begiaren inguruko hezurrean. Ondorioz, Aitor Larrazabalek ezingo du jokatu igandean Oviedoren aurka. Gauzak horrela, Luis Fernandezek ezingo ditu zelairatu Larrazabal, Joseba Etxeberria eta Carlos Garcia.

Sabino Padillak atzo azaldu zuenez, baliteke Loiukoak partidu gehiago galtzea. «Ezin dugu aurreratu zenbat den-

bora beharko duen osatzeko. Oviedoren aurka ezingo du jokatu, baina baliteke bi, hiru edo lau aste egotea zelaietatik kanpo», adierazi zuen atzo Sabino Padillak.

Aitor Larrazabalek adierazi duenez, «min itzela» nabaritu zuen Gabirirekin tupust egin zuenean. «Hasiera batean sudurretik odoletan nengoela ikusi nuen. Geroago konturatu nintzen begia txarto nuela. Izan ere, lau irudi ikusten nituen. Zelaian lau baloi eta aldagelan lau mediku. Hortik aurrera ez dut ezer gogoratzen klinikara iritsi arte», adierazi zuen Larrazabalek.

Bestalde, Rafa Alkorta,

Roberto Rios, Oscar Vales eta Iñigo Larrazabal normal entrenatu ziren atzo Lezaman, eta Sabino Padillak esan duenez, laurak igandean jokatzeko moduan daude.

Bana atzo Gasteizko Aurreraren kontra

Luis Fernandezek partidua antolatu zuen atzo arratsalderako Gasteizko Aurrera taldearen aurka, eta normalean jokatzeko ez duten gizonak eta lesionaturik egon direnak zelairatu ditu. Honako gizon hauek osatu zuten Athleticen hamaikakoa atzo arratsaldean Lezaman jokatuak partiduan: Lafuente, Alkorta,

Jose Mari, Rios, Larrazabal, Oscar Vales, Imaz, Lasa, Javi Gonzalez, Sivori eta Yeste. Bana egin zuten. Sivorik sartu zuen Athleticen gola. Otxoak Aurrerakoa. Luis Fernandezek atsedean eguna eman die gaur jokalariei.

Bestalde, Santi Ezquerro bere kabuz entrenatu zen atzo ere. Minduta dauka orkatila eta goizez eta arratsaldez ari da lanean lesioa errekuperatzeko. Ezquerrok ez du aukera handirik Oviedoren aurka jokatzeko, baina medikuek ez dute ezer aurreratu nahi. Litekeena da arris- kurik ez hartzea eta aurrelariak atsedena izatea hurrengo jardunaldian.

Mendia ♦

Edurne Pasaban oxigenorik gabe saiatuko da Everestera igotzen

Kirolgi Fundazioaren diru laguntza izango du tolosarrak

Erredakzioa / Donostia

EDURNE PASABAN Everest gailurrera oxigenorik gabe iristen ahaleginduko da, bigarren aldiz. 26 urteko mendizale tolosarrak beste hiru mendizalerekin osatuko du espedizioa, eta datorren martxoaren 26an abiatuko dira Tibet aldera, bertatik ekingo baitiote igotzari.

Espedizioak bi hilabete iraungo du, eta Gipuzkoako Diputazioaren babespeko Kirolgi Fundazioaren diru laguntza jasoko du: arrakastaren arabera, 500.000 eta 850.000 peze- ta artekoa (20.000 eta 30.400 libera artean). Pasabanek eta beste hiru espedizionalarietako Mallory bidetik egingo dute saioa, Everesten ipar-mendebalde- tik. Tibet aldeko igotza merkeagoa da. Tolosarrak dioenez, Nepaldik igot- zero, pertsona bakar baten baimena ia milioi t'erdia pezeata kostatuko litzateke (60.000 libera), mendizale gipuzkoarrak duen aurrekontu osoa, hain zuzen ere.

Edurne Pasaban iaz saiatu zen, lehen aldiz, Everestera oxigeno bonbo- narik gabe igotzen, baina ezin izan zuen 8.300 metrotatik goiti pasatu, eguraldi txarra zela eta. Gipuzkoarrak Andetako hainbat gailur eginak ditu, hala nola Chimborazo eta Cotopaxi.

Pasabanek gogoratu zuenez, 8.000 metrotik goiti oxigeno kantitatea itsasoaren mailan dagoe- narekiko heren batera jaisten da, eta, beraz, gogotik entrenatzen ari da egunero, lasterketa, bizi- kleta eta gimnasioa tarte- katuz.

Nolanahi ere, tolosarrak oxigeno bonbona pare bat eramango du, badaezbada ere, nahiz eta, berak argi- tu zuenez, azken kanpa- mendu basetik Everest- en gailurrera iristeko aski ez izan.